

6. KANALAK

Salmeta kanalari dagokionez, entrega APParen bidez burutuko da, hau da, aplikazioak izango duen entregari esker, guk eskeintzen dugun zerbitzua bezeroengana iritsiko da.

Gure **bezero segmentuarekin** komunikatzeko hainbat metodo erabiliko ditugu; alde batetik, aplikazioak izango duen foroaren bidez, eta ondoren, egingo ditugun ikastaroen bidez.

Ezinbestekoa da gure aplikazioaren pertzepzioa egokia izatea, bezeroen arreta deitu ahal izateko eta gure produktua erabiltzen hasteko. Hortaz, aplikazioak izango duen forma, kolorea, argazkiak... paper garrantzistua jokatuko dute gure salmentan.

Komunikazio kanalei dagokionez, gure enpresak hiru kanal desberdin ditu produktua erosleengana iritsi ahal izateko: **komunikazio kanalak, banaketa kanalak** eta **salmenta kanalak**.

Aplikazioa ondo joanez gero, hainbat proiektu jarriko genituzke martxan; hala nola, zozketak (nutrizionistarengana joateko baleak, produktu ekologikoen saskia...), menuen bideoak igotzea, produktu zehatz batzuekin errezetak egitea (adibidez: “zer egin romaneskuarekin?”), egunerokotasuna errazteko trukoak, informazioa berritzen joatea...